

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatetzaren urtarrilaren 24ko Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzen 2023ko deialdia, norgehiagoka prozedura bidez

BDNS (Identif.): 672557

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/672557>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: www.infosubvenciones.es

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzaren onuradunak honakoak izango dira: pertsona fisikoak edo erkidegoak, bizitegitarako erabilera duten eraikinen jabeak edo gozamedunak, eraikinek berrogeita hamar urtetik gora badituzte edo katalogazio edo babes motaren bat badute, eta eraikinen ikuskapen teknikoak egin ostean, dirulaguntzen eskaera egiten dutenak.

Eskatzaileen betekizunak.

Pertsona fisikoen kasuan: Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta egon behar dute deialdiko urtearen aurreko urtarrilaren 1etik, eta han erroldatuta jarraitu beharko dute deialdia ebazten den arte.

Pertsona juridikoen kasuan: Arratzua-Ubarrundiako udalerrian izan behar dute zerga egoitza, deialdiko urtearen aurreko urtarrilaren 1etik, eta hala jarraitu beharko dute deialdia ebazten den arte.

Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea eta harekin inongo zorrik ez izatea dagokion deialdia behin betiko ebatzi arte.

Bigarrena. Helburua

Oinarri hauen xedea da udalerriko eraikinen ikuskapen teknikoari (EIT) buruzko txostenaren kostua zati batean ordaintzeko Arratzua-Ubarrundiako Udalak bere eskumeneren barruan ematen dituen dirulaguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezke EIT egitearen ondorioz 2022ko azaroaren 14tik 2023ko azaroaren 14ra bitartean izandako gastuak (deialdia egiteko garaian indarrean dagoen araudian ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu ikuskatze horrek), baldin eta haietarako ez bazen eskatu dirulaguntzarik lehenago.

Bosgarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza egindako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 50era artekoa izango da; familia bakarreko etxeen edo etxebizitza atxikien kasuan, gehienez ere 150,00 eurokoa, eta jabe erkidegoen kasuan, gehienez ere, 200,00 eurokoa.

Gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaindituko egindako gastuaren ehuneko 90.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egingo dira, oinarrietan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2023ko azaroaren 15ean bukatuko da.

Zazpigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, I. eranskineko ereduaren arabera.

Eraikinen ikuskapen teknikoa egin duen enpresak emandako fakturaren kopia eta hori ordaindu izanaren ziurtagiria.

Eraikinen ikuskapen teknikoaren txostena udal bulegoetan entregatu behar da, beranduenez eskaera egiteko unean. Indarrean dagoen araudiaren arabera egina izan behar du txosten horrek.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE